

2006ko abuztuaren 1ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.006KO UZTAILAREN 11 ETA 20KO AKTEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.-ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.
- 4.- UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENARI BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.
- 5.-2007KO HERRIKO JAIEGUNA IZENDATZEA.
- 6.-ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 7.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2006ko uztailak 27.

ALKATEA.

2.006KO ABUZTUAK 1.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.

Antton Artola Ibarguren.

Patxi Ormaetxea Otegi.

Miren Aburuza Alkorta.

Javier Zabala Zabala.

Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko abuztuaren bateko hogeita bat orduak eta hamar minutuak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.006KO UZTAILAREN 11 ETA 20KO AKTEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2006ko uztailaren 11 eta 20ko akten berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dituzte.

BIGARREN PUNTUA:

ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Miguel Mari Arrospide Jaunari baimenik gabe egindako obren inguruko errekerimentua jakineraztea (142/2006 Alkatetza Ebazpena).

2.- Ramiro Dos Santos Regada Jaunak erroldatzearen inguruan tarteraturiko helegitean pertsonatzea (143/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- Pedro Rodriguez Jaunari Adunako Ordezko Arauen 2. eremuko UEU 2.4 unitateko hirigintz obren errezeptzioaren inguruko idatzia jakineraztea (144/2006 Alkatetza Ebazpena).

4.- Josu Amilibia Alsua Jaunari Belkoain bidea, 7an zenbait obra egiteko baimena ematea (145/2006 Alkatetza Ebazpena).

5.- Juan Goikoetxea Albisu Jaunak nekazaritza, lorazaintza eta berdegunetara bideratuko diren zenbait produktuen salmenta eta banaketa iharduerarako aurkezturiko proiektua onartzea (146/2006 Alkatetza Ebazpena).

6.- Juan Goikoetxea Albisu Jaunak nekazaritza, lorazaintza eta berdegunetara bideratuko diren zenbait produktuen salmenta eta banaketa iharduerarako aurkezturiko proiektua martxan jartzea (147/2006 Alkatetza Ebazpena).

7.- Iñaki Aspiunza Martinez Jaunari Prefabricados Iturria, S.L.-ren izenean 9. sektorean hormigoizko blokeak fabrikatzeko industri nabearen gaikuntza proiektua egiteko ihardueraren legalizaziorako establezimendua irekitzeko baimena ematea (148/2006 Alkatetza Ebazpena).

8.- Rosa Maria Dos Santos Regada Andereari SS-2160-AM ibilgailua erretiratzeko idatzia jakineraztea (149/2006 Alkatetza Ebazpena).

9.- Miguel Mari Arrospide Aburuza Jaunak legez kanpo egindako obren inguruan tarteraturiko helegitean pertsonatzea (150/2006 Alkatetza Ebazpena).

10.- Iñaki Gorostidi Astigarraga Jaunari baimenik gabe egindako obren inguruko errekerimentua jakineraztea (151/2006 Alkatetza Ebazpena).

11.- Antonio Dos Anjos Rodriguez Jaunari herriko festetan “tiro al pichón”- a jartzeko baimena ematea (152/2006 Alkatetza Ebazpena).

12.- Zubitxiki Industrieguneko 14. zenbakiko titularrari proiektuaren inguruko idatzia jakineraztea (153/2006 Alkatetza Ebazpena).

13.- Adunako Zubitxiki Industriegunean lurreko ibilgailuen ordezkoko pieza eta osagarrien txikizkako salmenta iharduera tramitatzen ari denari legalizazioaren inguruko idatzia jakineraztea (154/2006 Alkatetza Ebazpena).

14.- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailera bake epaitegietako gastuetarako dirulaguntza eskatzea (155/2006 Alkatetza Ebazpena).

15.- Jesus Mari Gorostidi Astigarraga Jaunak itxituraren inguruan tarteraturiko helegitea ez onartzea (156/2006 Alkatetza Ebazpena).

16.- Jesus Mari Gorostidi Astigarraga Jaunari lizentziaz kanpo egindako obren inguruko errekerimentua jakineraztea (157/2006 Alkatetza Ebazpena).

17.- Jose Miguel Agirre Arregui Jaunari Lardi auzoan kokaturik dagoen txabolan leiho bat atera eta lurrean masa botatzeko baimena ematea (158/2006 Alkatetza Ebazpena).

18.- Mohamed Stitou Jaunari herriko festetan jostailu eta txutxeriak saltzeko baimena ematea (159/2006 Alkatetza Ebazpena).

19.- 2.006 urteko 2. hiruhilabeteko ur hornidura zerbitzuagatikiko tasaren errolda onartzea (160/2006 Alkatetza Ebazpena).

**HIRUGARREN PUNTUA:
ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA
URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.**

Ez dago eskaerarik.

**LAUGARREN PUNTUA:
UDAL PLANGINTZARAKO ORDEZKO ARAUEN BERRAZTERPENARI BEHIN
BEHINEKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.**

Udalbatzak, aho batez, Udal Plangintzarako Ordezko Arauen Berrazterpenari behin behineko onarpena ematea erabaki du legezko kideen kopuruarekin eta espediente osoa

Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea gehienez 6 hilabeteko epean behin betiko onarpena eman dezaten.

BOSTGARREN PUNTUA:
2007KO HERRIKO JAIEGUNA IZENDATZEA.

Uztailaren 18ko 154/2006 Dekretuaren 2.3 artikulua, (uztailaren 26ko 141 zenbakidun EHAAan argitaratua), xedatutakoa betez, eta 2007ko Gipuzkoako udalerriguztietako jaiegun lokalak zehazteko asmoz, Adunako Udaleko Alkateak abuztuaren 16a proposatu eta Udalbatzak, aho batez, onartu egiten du.

SEIGARREN PUNTUA:
ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrien eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Gai zerrendatik kanpo, honako gai hau erabaki da:

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak Tolosaldeko ur hornidura 5.fasea: Adunako adarra proiektuarekin loturik Adunako herritik barrena Udaleko ur sare berria jartzeko aurkezturiko hitzarmena aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

- a). Hitzarmena onartzea.
- b). Alkateari hitzarmen hau sinatzeko boterea ematea.

Beste Aztergairik gabe, hogeita hiru orduak direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.